



V. HITZA PILOTA TXAPELKETA AZKEN TXANPAN

Etzi benjaminak eta alebinak ariko dira Berastegin; larunbatean infantil, kadete, jubeni eta nagusiak ariko dira Tolosan 3

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



Asteazkena
2008-06-25
VI. URTEA 1.469. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

AGUR SAN JOAN

TOLOSALDEA Zaindariaren egunarekin agur esan diete sanjoanei Abaltzisketan, Belauntzan eta Tolosan

EGUN HANDIA Besteak beste eskopetariak, dantzariak eta batelek kolorez bete zuten jaien azken eguna Tolosan 4-5



Eskopetariak tiro egin zuten; batelen finalean Izaskun AKE 66 tabernakoek irabazi zuten, nesketan; ohiturari jarraituz, bordon dantzariak Andre Mari plazan dantzatu zuten. E. EZEIZA / I. GARCIA / N. LATABURU



luz, Asteasun, herritarren arteko herri kirol probaren une bat. JOXE MARI IBARLUZEA

Asteasun eta Leaburun, San Pedro jaiak noiz hasiko zain

Jaiak » Asteasun bihar hasiko dira eta Leaburun asteburuan ospatuko dituzte; zaldiak protagonista bi herrietan.

ERREDAKZIOA

Jakina denez, sanjoanen ondoren sanpedroak etortzen dira eta eskualdean bi herritan ospatzen dira: Asteasun eta Leaburun. Aste-

asun bost egunetan zehar izango dituzte ekitaldiak, bihartik hasita. Leaburun, berriz, asteburuan izango dira.

Zaldia protagonista izango da bi herrietan, baina batez ere Leaburun, Zaldi Eguna egingo baitute larunbatean. Hainbat ekitaldi egingo dituzte animalia horren inguruan. Herri bazkaria ere izango dute Leaburun egun horretan eta txartelak salgai daude Herriko Ostatuan, Tolosako Leitzako Ogian

eta Astigarragako Trankon. Asteasun ere larunbatean egingo dute *Ni Zaldi* ikuskizuna.

Aiztondo bailarako herriarekin jarraituz, egun batzuk protagonista bereziak izango dituzte: bihar haurren eguna izango da, etzi koardilena, igandean Trikiti Eguna ospatuko dute eta astelehenean jubilatuen txanda izango da. Sanjoak ez du etenik izango eskualdean sanpedroekin.

» EGITARUAUK

Asteasu

Ekainak 26, bihar Haurren eguna

- **10:00.** Haurren arteko krosa eta marrazketa lehiaketa.
- **12:00-14:00.** Haur parkea.
- **14:00.** Haurren arteko bazkaria.
- **15:30-18:00.** Haur Parkea
- **18:30.** Haur antzerkia: Zirko Ttipiaren *Guiriguay* emanaldia.
- **20:30.** Sorginaren jaitsiera, txupinazoa eta txistulari, buruhandi eta erraldoiekin kalejira.
- **22:30.** Bertso saioa. Sebastian Lizaso, Joxe Agirre, Jon Maia, Jexux Mari Irazu, Amaia Agirre eta Iker Zubeldia. Gai jartzailea: Sari Jauregi.

Ekainak 27, etzi Koadrilen eguna

- **14:30.** Koadrilen arteko bazkaria. Arratsaldean helduentzat jolasak.
- **19:00.** Herriko Musikarien Kalejira.
- **21:30.** Herri afaria plazan. Ondoren Trakets taldea.

Ekainak 28, larunbata

- **11:00.** I. Gastronomi Erakusketa Herrikoa: patata tortilla.
- **13:00.** Sari banaketa. Dastaketa: patata tortilla eta sagardoa.
- **16:00.** Gaztetxoaren goitiberak Elizmendir.
- **17:00.** Mus txapelketa herrikoiki. Mailak: 16 urte arte eta 16 urtetik aurrera.
- **18:00.** Zezen txiki eta ponyak.
- **18:00.** Pilota jaialdia. Esku Pilota Eskolako txapelketa finalak: alebinak eta infantilak. Aiztondo Txirindulari Elkartek antolatutako

Asteasuko Pala Txapelketaren finala.

- **23:00.** Ni Zaldi ekitaldia Lamiategiko sororan.
- **24:00.** Ipar Haizea eta Mendeku Itsua taldeen kontzertua.

Ekainak 29, igandea San Pedro Eguna

- **10:00.** Diana
- **11:15.** Meza Nagusia. Ondoren Elizmendir hamaiketakoa, dantza soka eta esku pelotak finalak aurreberjamin eta benjamin mailatan.
- **13:00.** Elizmendir Trikiti Egunaren hasiera. Taldeak elkartu eta kaleruntz irtengo dira kalejiran.
- **18:30.** Herriko gazteen arteko herri kirolak.
- **19:30.** Trikiti Egunaren jaialdia herriko plazan.
- **23:00.** Ostolaza eta Pujana trikitilariak.

Ekainak 30, astelehena Jubilatuaren Eguna

- **11:15.** Meza. Ondoren Aiztondo Elkartek Herriko Jubilatuei eskaintzen die hamaiketakoa.
- **13:00.** Herri kirolak. Aizkolariak: Aratz Mugerza eta Xabier Alkizalete bikotea eta Ugaitz Mugerza eta Jokin Alkizalete bikotea. Harri-jasotzaileak: Aimar Irigoien eta Miren Urkiola.
- **14:30.** Jubilatuen bazkaria. Bertan Telleria eta Zeberio bertsoariak eta Xapre eta Zaharra trikitilariak ariko dira.
- **18:30.** Herriko Dantzari Txikien emanaldia.
- **19:30.** Tapia eta Leturia taldearekin dantzaldia.

Leaburu

Ekainak 28, larunbata Zaldi Eguna

- **08:30.** Zaldunentzat gosaria herriko plazan.
- **09:00.** Ibilaldia Leaburu-Berastegi-Leaburu.
- **13:00.** Zaldi eta zaldunen etorrera.
- **14:00.** Bazkaria. Bertan zaldientzako nahiz zaldunentzako tresneriaren zozketa.
- **16:30.** M.us txapelketa Zazpi Bide elkartean.
- **16:30.** Haur jolasak. Ondoren txokolatada.
- **17:00.** Perraketa.
- **17:15.** Western heziketa eta heziketa naturala.
- **18:15.** Zaldi erakustaldia.
- **19:00.** Zaldia astoaren aurka apustua. Arratsalde guztian zehar zalgurdian ibiltzeko aukera izango da.
- **21:00.** Herri Afaria.
- **23:00.** Xapre eta Zaharra trikitilariak.
- **01:00.** Musika.

Ekainak 29, igandea San Pedro Eguna

- **12:30.** Toka txapelketa.
- **17:30.** Herriko Dantzarien emanaldia.
- **18:30.** Herri kirolen erakustaldia: Maria Jose Sardon harrijasotzailea, Jose Ignacio Flores eta Ernesto Ezepeleta aizkolariak, Ana Arrospide ingude eta lasto altxatzailea eta ahari jokoak.



Solidarioek euskal preso eta iheslarien egoera salatu zuten Anoetan. HITZA

Espainiako eta Frantziako espetxe politika salatu dute

ERREDAKZIOA

Anoetako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak (AAM) Espainiako eta Frantziako espetxe politika salatu ditu prentsa ohar baten bitartez. AAMk dioenez, «Euskal Herriaren aurkako gerra estrategia horretan aipamen berezia mezezi du euskal preso politikoen eta hauen eskubideen defentsan ari garenon aurkako jazarpen eta erasoa». Horren «adibide garbiak» daudela diote nazio mailan zein Tolosaldean bertan ere.

Salatzen dutenez, «benetan larriak dira euskal preso politikoen pairatzen dituzten bizi baldintzak». Larri gaixorik dauden presoaren egoera eta bereziki Mikel Ibañezena dute gogon: «Frantziar eta espainiar espetxeetan jasotako tratua kaxkarraren ondorioz minbiziak jota oso larri dago Donostia-ko ospitalean». Subijana eta Gonzalez euskal presoek «espetxean jasaten duten egoera salatzen» 19 egunetako gose greba burutu dutela gogoratu dute ere.

Pello Odriozola tolosarraren egoera ere aipatzen dute. «Benetan larria da, bere egoera berean dauden presoena bezala. Pellok 20 urte espetxean igarota uztailean libre atera behar zuen arren, Parot doktrina aplikatu eta beste 10 urte egon beharko du espetxean, 2018ra arte». AAMren iritziz, kasu hauek «garbi» erakusten dute bi estatuek aurrera daramaten espetxe politika «mendekuan oinarritua dagoela». Beraien helburu bakarra «presoei eta beraien senideei ahalik eta sufrimendu gehien eragitea» dela zehazten dute.

Julen Zelarain billabonatarra- ren eta berarekin batera Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren aurkako epaiketan auziperatuta dauden beste 24 kideen egoera ere aipatzen dute: «Euskal preso eta iheslarien eskubideen alde lana egiteagatik 10 eta 13 urtetako espetxe zigorra jaso dezakete».

Egoera horiek guztiak salatzen elkarretaratzea eta manifestaldia burutu zuten Anoetan 35 lagun inguruk herenegun arratsaldean. Egun horretan, San Joan Suaren inguruan zortzi *solidario* lau pankarta bota zituzten sutara: *Parot doktrina*, *Epaiaketa fartsa*, *Presoen bizi baldintza kaxkarrak* eta *Espe- txe politika hiltzailea*. Ondoren *Euskal Herriak askatasuna behar du* zioen pankarta zintzilikatu eta preso eta errefuxiatuen Euskal Herriatzearen aldeko banderolekin suaren inguruan egon ziren.

AAMren aldetik deia luzatzen diete herritarrei «espetxe politikak hiltzaile hau San Joan Sura bota eta presoaren eskubideen defentsan lanean jarraitzeko, bere presoak ahazten dituen herriak ez baitu etorkizunik».

«Une garrantzitsua»

AAMak gaineratzen duenez, «une garrantzitsua bizi ditugu Euskal Herrian. Inork ez du ukatzen gure herriak aldaketa beharra duela». Bere ustez, «aldaketaren atarian egonik, aitzakia honekin PSOE, EAJ eta NaBaik iruzur politikoa egin nahi diote herri honi, orain arte bezala Espainiaren menpe egotearen truke hauek utzitako botere apurrak kudeatuz patrikak betetzen jarraitzeko».

AAMk dioenez ezker abertzalea da Euskal Herriaren eta herritarren eskubideetan oinarriturik «bizi dugun gatazka konpontzeko balioagaria den proposamena markari demokratikorako proposamena».

Ezker abertzalea «pauso garrantzitsuak» ematen ari da AAMk dioenez eta horretan jarraitzeko «determinazio osoa» du. «Estatu frantses eta espainiarrek hortaz jakitun dira eta horregatik Euskal Herriaren aurkako gerra estrategia jautsi eman dute», gaineratzen du.

Aurtengo HITZA Txapelketako kartela. Finalera iritsi diren jokalariek agertzen dira. Infantiletan eta jubeniletan azken orduko aldaketak izan dira. M.G./HITZA

Etzi V. Hitza Pilota Txapelketako benjaminen eta alebinen arteko finalak Berastegin jokatuko dira. Infantilak, kadeteak, jubenilak eta nagusiak larunbatean izango dira Tolosan.

Eskualdekoak final guztietan

NEREA URBIZU

V. HITZA Pilota Txapelketako finalak gainean ditugu. Apirilean jokatzen hasi ziren 22 jokalarik etzi eta larunbatean jokatuko dituzte azken partidak. Berastegin txikienak ariko dira, hau da, benjaminak eta alebinak, ostiralean 19:00etatik aurrera. Infantilak, kadeteak, jubenilak eta nagusiak, berriaz, Tolosako Beotibarren ariko dira larunbatean goizean, 10:00etan hasita.

Guztira 21 pilota eskola aritu dira txapelketan eta bizkaitarrak, nafarrak, arabarrak eta gipuzkoarrik aritu dira. Guztira, 6 maila eta orotara, 250 pilotari inguru. Esan beharra da, Tolosaldeko gutxienez pilotari bat ariko dela final bakoitzean: Alegialdekoak, Ibarraldekoak eta Villabona-Aiztondekoak. Aurtun orekatuta, beraz.

Maila guztietan binaka aritu dira, kadeteenetan izan ezik. Hala egin ohi da txapelketa honetan. Aurtun ez da etorkizuneko ez 22 urte azpiko mailarik osatu bestetan bezala, Luis Galarraga Aurrea-Saiaz pilota eskolako ordezkariak argitu bezala, «oso zaila baita adin hauetan pilotariak batzea eta txapelketa aurrera eramatea. Gainera, partida asko dituzte bestela ere».

Azken orduko aldaketak

Finalak jokatuko diren egunak eta orduak mantendu egin dira, baina ez, ordea, pilotari batzuk, arrazoi

desberdinengatik. Infantiletan, Labaka-Zelaia ziren jokatzeokoak, baina Zelaia besoko hezur bat hautsi egin du, eta haren lekuan

Azken orduko aldaketak izan dira eta infantiletan eta jubeniletan beste jokalariek batzuk ariko dira

Sari banaketa larunbatean Beotibarren da eta sei mailatako jokalariek elkartuko dira

Aranalde berastegitarra ariko da. Jubeniletan dagoen beste aldaketa honakoa da: Kortabarria-Aretxabaletaren ordez, Kortabarria-Garzia ariko dira. «Aretxabaletak Herriarteko finala zeukan egun bere-



Infantien arteko finalerdian, Urdangarin goierritarra. I. GARCIA

an, eta bat aukeratu behar izan du».

V. HITZA Pilota Txapelketako partida guztiak sei pilotalekutan jokatuko dira aurtun: Adunan, Beras-

tegin, Albizturren, Alegian, Tolosan eta Bidanian; bakoitzean maila bateko norgehiagokak. Herri hauetako Udalak izan dira txapelketako laguntzaileak, Eroski, Ere-

» FINALAK

Berastegin 19:00etan

■ **Benjaminak.** Irazustabarrena-Altuna (Alegiakoak) eta Sagarazu-Mujika.

■ **Alebinak.** Larrea (Ikaztegieta-koa)-Iribarria eta Espelusin-Azpirotz.

Tolosan 10:00etan

■ **Infantilak.** Labaka-Aranalde (Albiztur eta Berastegi) eta Urdangarin-Jaka (Lizartzakoa).

■ **Kadeteak.** Jauregi eta Urbiet (Asteasukoa).

■ **Jubenilak.** Ezkurdia-Zubiria (Berastegikoak) eta Kortabarria-Garzia.

■ **Seniorrak.** Renobales (Alegia)-Bengoetxea eta Armendariz-Lopez.

Sari banaketa

■ **Beotibar.** Partida guztien ondoren, eguerdi partean.

du, Epi kristaleria, Diva pentsuak, Reviglass, Laex, Fronton jatetxea, Aralar Kirolak, Grupo Calcimor, Ermio sukaldak eta Orvi grafikalekin batera.

Sari banaketa larunbatean Beotibarren egingo dute, lau norgehiagokoen ondoren. Sariak banatzeko garaian sei Udal hauetako ordezkariak etorriko dira, 22 pilotariak saritzeko: «Finalera iristea bakarrik, gauza handia da». Beotibarre eta herrietara jendea joan da partidak ikustera: «Jendearan erantzuna ona izan da. Arazorik ere ez da izan antolakuntza alde-».

Finalerara jendea joatea ere espero dute, orain arte ikusi ahal izan diren partidak «gustura» ikusi baituzte, oraingoak are gehiago. Txistulariak ere izango dira bertan, sari banaketaren bitartean, eta final guztiak jokatuko dituzten jokalariek elkartuko dira, hau da; 22 jokalariek.

HITZA Txapelketan aritutako profesionalak

HITZA Txapelketaren bosgarren urteurrena da eta hauen baitan gaur egun profesionaletan dabilen batzuk aritu dira. Aurtun debutatu duten Garmendia, Olaetxea, Ugarte adibidez, eta Belloso, Olaetxea, Oteiza, Iza, Apraiz... denbora gehixeago daramatzanak.

SEGUROS BILBAO

Zumardi

aholkularitza integrala

San Joan festa zoriotsuak opa dizkizu

Laskurain, 8 behea • TOLOSA
Tel.: 943 65 18 78 • Tel./Faxa: 943 65 18 77

XOILAN, S. L.

Tel.-Faxa: 943 67 06 26
659 04 57 65

Igarondo, 1-behea • TOLOSA

- garbiketa orokorrak lokal komertzialen mantenua
- bulegoak • fabrikak
- ikastetxeak etabar
- lur zoruei distira eman
- injekzio sistemak moketen garbiketa eta tapizen garbiketa orokorrean

ESTALDUREN ERABERRITZEA FATXADA ETA ETXEBIZITZAK IGELTSERITZA ORO HAR

PIGOLA ERAIKUNTZAK, S. L.

Izaskun Bidea, 7 behea
Tel.: 943 67 57 53 • Faxa: 943 67 02 33
Sakelakoa: 606 98 11 35 - 606 98 10 80

20400 TOLOSA



Eguri di partean Triánguloan elkartu ziren eskopetarien konpainia gurtziak, Udaltzarenkin batera; gurtziak batera Iruia [auri] zuten. L. CIZUA

SUAREN AZKEN ERRAUTSA

Sanjoanak» Herriko zaindariaren egunarekin amaitu ziren atzo eskualdeko hiru herritan jaiek; Tolosan, Abaltzisketan eta Belautntzan.

N. LATABARU-G. EZEIZA

Herriko zaindariaren egunarekin amaitu dituzte festak, Tolosan, Abaltzisketan eta Belautntzan. Hala, inoiz baino indartsuago eta biziago osatu zuten atzo San Joan Suaren azken errautsak.

Belautntza eta Abaltzisketan meza, hamalaketako eta pilota partidak izan ziren besteak beste. Hala ere, jaietarako dominekin eman zieten amakera.

Tolosan eskopetarien eguna izan zen atzoko. Goizean goiz, 09:30ak aldera elkartu ziren Plaza Zaharrean Tolosako Musika Bandaekin batera. Diana, desfilea eta ondoren San Joan alardea egin zuten Gipuzkoako foru milizien oronimenez. Kalea kale-biti ziren laurakun eskopetari inguru, eta Meza Nagusia amaitzerako Santa Maria elizaren aurrealdera bidertatu ziren. Bertan, lehendabiziko erraldioak egin zuten danza, eta ondoren Bordondantzariak. Honen ostean, prozesioan abiatu ziren kofradietako kideak, Udaltzariak, Tolosako Musika Banda-koak, dultzaineroak eta nesketariak. Hemenik, eskopetari konpainiak Foruen plazan (Triánguloan) elkartu ziren. Bitartean Udaltzariak Kultur Erako bako bakoira ego ziren, eta handik goaztu zuten ikaskizunaz.

Triánguloan, elkartek, banaka beraien deskargak eginen hasi ziren. Ondoren, Javier Ugartei egin zioten omenaldia. Hasi Sukalde konpainiako kapitainak izan zen eta duela hilabete gurtzi hil zen. 1960 inguruan hasi zen eskopetari gisa, honenbestez, eskopetari konpainia beterranoeneko kapitain beterranoena. Hemen, Ugarteren emazteari lore-sorta bat eman zuten, eta honengain, plaka batekin ni zieten familiakoei. Bestalde, hauetako batek zuzendu zuen Triánguloan bilduta zeuden eskopetari gurtien azken deskarga.

Ur gaitzeko lehia

Atzo jokatu zen sanjoanetako Bastei Estropadaren final handia. Oriá ibaiaren ertza jendez beteta zegoen, ikusmin handia sortzen baitzuten estropadak. Lehendabiziko neska sartu ziren uretan, eta hemen, Itzaskun AKE 66 tabernakoak izan ziren garailek. Bigarren postuan Gure Txokoak elkartekoak geratu ziren. Hirugarren postua bertiz, Ibarra Gurutze karrozterakoentzari izan zen, eta laugarrena, Txin parta elkartekoak.

Nesken estropaden ondoren, Karlos Peña eta Jose Luis Kortaren arteko desafioa jokatu zen. Zeresan handia sortu zuen apustak, aurtengo festetako berrikuntzetako bat izan zen. Baina lehia handiegirik ez zen egon. Izan ere, Kortak erraz zaharkatu zituen bost ziabogak. Pehari alde nabarmena tera

zion, eta azken txanpan, itxaron egin zion, bick batera bukatzeko egin behar zela.

Mutlen arteko lehiari dagokionean, Tolosako Bogakoak izan ziren garailek. Bigarren postua Gaitzela Later tabernakoentzari izan zen. Bestalde, hirugarren postua bi taldek eraman zuten. Berdinketa egunen Itzaskun AKE 66 tabernakoentzari eta Zelaikoen artean. Boga- garen denborarik onena SMG-Osmak-elokak egin zuten, eta seigarrena, Anetoako arraunlariek.

Estropaden ondoren, eta sari banaketa egin eta gero, Zerkaustra joan ziren arraunlariek, eta antolatzaileak ikideak bezalaztera.

Arratsaldean gehiago

Bazkaloetan, kalera atera ziren berriro eskopetariak, Bordondantzariak, Tolosako Musika Banda-koak, Txistularien Banda eta Udaltzariak. Hala, Plaza Zaharrean elkartu ondoren, Santa Maria eliza nagusiko bezperetara joan ziren. Ondoren, Arraneko San Joan kaparen ospetako arratsotzetan hartu zuten parte. Elizakizuna amaitzen, denak Triánguloan bilduratu ziren, bertan azken deskargak egiteko. Bertan, ohiturari jarraituz, Jokin Bildarratz aitakak Joan Deunari agurrak dantzatu zituen. Hemendik, Zumardi Handira abiatu ziren, eta han, aurrekoa dantzatu zuten.



Korta eta Peña, desafioaren ondoren. N. LATABARU



Mutletan, Bogak irabazi zuen batelaren finala, Oriá ibaian. N. LATABARU



Javier Ugarte 'Goterak'-i omenaldia egin zioten; Bildarratz aitakak lore sorta eman zion emazteari. L. CIZUA



Dantzariak ere prozesioan joan ziren Aize Zaharretik. L. CIZUA



Belautntzan ere atzo izan zuten San Joan jaien azken eguna. L. CIZUA



Adin gutrietako eskopetariak bildu ziren Triánguloan. N. LATABARU



«Bazterketa egoera» salatuz

TOLOSA» Tolosan Demokrazia Zera Lapurak dimittitu lelopean elkarretaratzera egin zuten herri enegun Arramieko zubian, azken urte hauetan ezker abertzaleak bizi duen «egoera antidemokratikoa» salatuzko. Be-

riaren esanetan, «azurten ere, herriko jaiek gainontzeko talde politikoei urte osoan herri honen laurdenaren ordezkari egingako bazterketaren eta irainaren irudi eta adierazle bilakatu baitira». M. GARCIA

Ekain beltza berriekin

eleBERRI beltzAekin

Utzi ezinik irakurtzeko modukoak

Lau liburuk: **ekainak 7, 14, 21 eta 28**

+ 2,9€

berria



Artelanen erakusketa ikusgarria

Ibarra » Izen ezagunik gabeko ikasle artistek euren lanak Kultur Etxean jarri dituzte ikusgai uztailaren 4ra bitarteko erakusketan.

ASIER IMAZ

VIII. Kultur Lantegietako Artelan Erakusketa zabalik aurkitzen da ekainaren 16az geroztik Ibarra-ko Benito Izagirre kultur etxean. Uztailaren 4ra bitarte, 09:30etik 13:30etara, ikasturtean tailer ezberdinetan ikasleek egindako lan-

nak ikusteko aukera egongo da Kultur Etxeko areto nagusian.

Erakusketa atal ezberdinetan dago antolatuta: pintura, errestatuazioa, egur taila, ehoziak eta bainiak eta eskulanak dira atal horiek. Hauetaz gain, masaia, areto dantzak eta sebillana tailerrak osa-

tzen dute kultur lantegien eskaintza. Bi dantza moten kasuan, erakusketaren inaugurazio ekitaldian ikasleek emanaldia eskaini zuten.

Bi helbururekin

Erakusketa bi helbururekin antolatuko dute. Lehenik, «eta helburu nagusi bezala, ikasturte guztian zehar egiten diren artelanak erakusgai jartzea izan da, tailerretan zer egin den ikusteaz gain baloratuak izan daitezten. Bigarren helburuak berriz hurrengo urteko tai-

lerrekin dauka zerikusia. Hau da, jendeak kultur lantegietan zer lan egiten diren ikusten duenean, bere burua anima dezake hurrengo urteko tailerretan izena emateko».

Antolatzaileen esanetan tailerretan 100 ikasle inguru ibili dira aurtengo ikasturtean. Adin guztietako ikasleak gainera; «tailer bartzuetan 16 urteko gazteek ere parte hartu ahal izan dute aurtengoan. Adin tarte zabala osatzen dute ikasleek: 16 urteko gazteetatik hasi eta jubilatuetaraino».

Matrikulazioak irailan

Kultur lantegietako ikasturte berri-rako matrikulazioa irailan zabalduko dute. Izena eman eta gero, astean behin edo bitan irakaslearekin lan egingo dute ikasleek, baina horretaz gain, tailerrak zabalik izango dituzte edozein egunetan euren lanak egitera joateko. Antolatzaileen esanetan «ikasleak arrazoi ezberdinengatik apuntatzen dira tailerretan: sozializatzeke, jendea ezagutzeko, zaletasuna gartzeko edo denbora pasatzeko».

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Langile bat igerilekuari azkeneko ukituak ematen, bihar ireki ahal izateko. N. GARZIA

Bihar emanen diote hasiera igerilekuko denboraldiari

Leitza » Langileak igerilekua ireki ahal izateko azkeneko ukituak ematen ari dira, eguraldi txarra dela-eta ezin baitute aurretik lan egin izan.

NAIARA GARZIA

Bihar irekiko dituzte herriko igerilekuak eta honela aurtengo denboraldiari hasiera emanen diote. Hori da, behintzat, Maria Zabaleta igerilekuko arduradunaren asmoa, izan ere, aurtengoa egiten dituen euriteengatik ezin izan dute behar adina denborarekin prestatu.

«Orain arte ez dugu prestatzeko aukerarik izan», dio Zabaletak, «eta ezin zen belarra ere ebaki, makina barrurasartzen zelako. Orain, azkeneko egunetan eguraldi ona egin duenez, pixka bat lehortu da eta lan egin daiteke». Honetaz gain, obrak egin dituztenez, lurzati bat berria da eta «oso biguna» ze-



Maria Zabaleta igerilekuko arduraduna da. N. GARZIA

goela gehitu du Zabaletak. «Putzu ikaragarriak zeuden».

Duela urtebete erreka atera zen eta lehengo urteko piszina denboraldia amaitu zenean hasi ziren konponketa lanekin eta maiatzean amaitu dute. Erreka azpitik igarotzen zen eta ez zegoen hodirik. «Hodi bat sartu dute eta orduan erreka hortik bideratu dute. Horretarako lurra altxatu behar izan dute zati batean». Astebete beranduago irekiko dutenez, itxi ere horrela egingen dute. «Eguraldi ona egiten badu, irailaren 14an itxiko dugu, beranduago ireki dugunez».

Festak

Urtero bezala, udan zehar pare bat festa egingen dituzte. Urte-festa uztailearen 18an egingen dute, 22:00etatik 00:00etara, eta 14 urtetik gorako gazteentzat izanen da. Honetaz gain, guraso elkarteak antolatuta uztailearen 19an ere beste festa bat egingen dute.

Berrikuntzak

Aurtengo denboraldirako pare bat berrikuntza egin dituzte. Alde batetik, dutxek 3 euro balioko dituzte eta arratsaldean igerilekura sartzen denak gutxiago ordaindu beharko du, hau da, 18:30etik aurrera gutxiago kobratuko dute, 3 euro. Ordutegia, berriz, urterokoak izanen da: 11:00etatik 20:00etara.

Abonamenduak

Urtero bezala, aurtengoa ere abonamenduak egiteko aukera izanen dute eta bazkide direnek gutxiago ordaindu beharko dute. Bestalde, 5 abonamendu ezberdin daude, prezioei dagokienez: haurrentzakoak (5 eta 13 urte bitartekoentzat), gazteentzakoak (14 eta 17 urte bitartekoentzat), helduentzakoak (18 eta 64 urte bitartekoentzat), 65 urtetik gorakoentzat eta familiarra.

Eguneroko sarrerak ere horrela sailkatuta daude, jai egunetan beste prezio bat izanen dute eta bazkideek gutxiago ordainduko dute.

Arantxa Sagastibeltzak ez du sailkatzerik lortu

Leitza » 100 sommelier aurkeztu ziren 'Urrezko Sudurra' txapelketara eta bederatzik soilik igaro zuten lehenengo proba.

N. GARZIA

Igandean Madrilen egindako Urrezko Sudurra txapelketan Arantxa Sagastibeltza leitzarrak hartu zuen parte. Orotara 100 sommelier bildu ziren eta bederatzik soilik gainditu zuten lehenengo proba.

«Proba oso zaila zen, lehenengo urtean irabazi zuenak ere zera esan zuen, bera 8 aldiz saiatu zela irabazi baino lehen». Lehenengo

proba Gasteizkoa bezala izan zen. 5 ardo deskribatu zituzten, Segoviako bodega batekoak. Gero parte-hartzaile guztiak kanpora atera ziren eta sartu zirenean kopa beltz bat zegoen eta usaimenarekin bakarrik ze ardo zen asmatu beharra zuten. «Honetaz gain, kolorearen deskripzioa ere egin behar genuen, aurretik ikusita geneuzkalako kristalezko kopetan. Kata osoa egin behar genuen, beraz, eta horrek esan nahi du kolorea, usaimena eta dastamena ere esan beharra dituzula».

100 sommelierrek ardo bera zuten kopa barruan. «Segoviako ontze bat zen Duraton izenekoa, 2005. urtekoa, 13 hilabete barruan igarotakoa: %60 tempranillo, %30

syrah eta %10 marlot, horiek ziren bere osagaiak».


Beste urteetan baino jende gutxiagok asmatu du aurtengoan. «Aurtengoa oso zaila jarri dutela esan dute, zorrotek zerikusirik ere bazuten, usaimenaren ez baitzen ardo bat bestearengandik gehiegi ezberdintzen».

Sagastibeltza, «poziko»

Arantxa Sagastibeltza «poziko» dago orain arte lortu duenarekin. «Aurreneko aldian zen Gasteizera joaten nintzela, txapelketa horretan sailkatuta oso pozik gelditu nintzen, gero Madrilen egotea esperientzia bat izan da. Hurrengo urtean berriro parte hartzeko asmoa dut».

Bestalde, urriaren Mijasen (Málaga) egingen den Espainiako Txapelketan parte hartuko du. Txapelke-

ta hau irabazten duena munduko txapelketarako sailkatuko da zuzenean.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil


Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Tximistek piztutako sugarrak



Santa Maria elizaren kanpoaldean San Joan Sua piztu zuten, Tolosan; herritar asko ausartu ziren salto egitera. IMANOL GARCIA



Leiztan ere San Joan Bezpera ospatu zuten suaren inguruan; halaber, herri afaria egin zuten. NAIARA GARCIA

Tolosaldea-Leizaldea »

Euriak herri batzuetan San Joan Sua zapuztu bazuen ere, herri askotan suaren gainean egin zuten salto.

ERREDAKZIOA

Suaren indarrak, bizitasunak eta xarma ezkuatuak erakarrita, urteetan zehar, milaka lagun biltzen dira San Joan bezperan, honen inguruan festa egitera. Urteko gaitzaren egunetan, garren berotasunetik, aldentzen bagara ere, urteko gaurik motzenez, beldur rari aurre egin eta gaitzetik saltzaten saiatzen gara. Urtearen esan daiteke, zerutik lurreraino jaisten ziren tximistek piztu zutelak.

Herri gehienetan ospatzen da San Joan Bezperako Eguna, nahiz eta askok ez jakin nondik datorren ohitura. San Joan Suak oroitzen txarrak erretzeko balio du, eta garrai berri baten hasiera adierazteko. Honenbestez, gure inguruko izpiritu txar guztiak uxatu ziren herenegun. Orain, hurrengo urtera bitartean etortzen direnak erretzeko, berriro beste urte bat itsaron beharko dugu.

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosa.** Ekainaren 28an, 16:30ean Spinning festa Zerkausi-ko goiko solairuan Kilometroak 08ren alde. Izen-ematea, www.kilometroak.net, egunean kmk.ikuski-zunak@ikastola.net edo 688 658004 telefonoan.

■ **Tolosa.** Uztailearen 6an egingo den Jubilatuen Festarako izen-ematea egin daiteke Harizpe eta Iturriza jubilatutako elkarteetan. 65 urte izan eta Tolosan bizi direnentzat da.

Erakusketa

■ **Tolosa.** Homofobia, Lebofobia eta Transfobiaren aurpegiak, EHGAM taldearen erakusketa Leidor aretoan.

■ **Tolosa.** Jose Luis Lopez Tolosaren margolanak ikusgai daude Itaie tabernan. Tolosa, Donostia, Donibane eta Errezilgo paisajeak dira.

■ **Tolosa.** Myriam Orkoinen ibartarrak olio-pinturak eta akriliko abs-

traktoak ditu ikusgai Fronton kafe-tegian.

■ **Tolosa.** Ana Jesus Ansorena tolosarraren zeramika lanak daude ikusgai Lanbroa tabernan.

■ **Alegia.** Jubilatuen tabernan Noelia Crujeirasen margolan abstraktoak izango dira ikusgai.

Zinema

■ **Tolosa.** Bihar, Win Wendersen *The soul of a man* filma izango da ikusgai 19:15ean eta 21:45ean Leidor aretoan, Tolosand blues jaialdiaren barruan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.

■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.

■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunik.

PIXKA.BAT
ES.MUCHO

UKAN RECORDS

Hartu doan pixkabatesmucho.com webgunetik.